BESTELAKO XEDAPENAK

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

570

EBAZPENA, 2012ko urtarrilaren 9koa, Berrikuntza eta Teknologiako sailburuordearena, zeinen bidez argitara ematen baita Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2008ko irailaren 25eko Aginduan 2011. urterako aurreikusitako laguntzak jasoko dituztenen zerrenda. Agindu horren bidez, teknologia-zentroei eta beren korporazio eta itun teknologikoei laguntzeko programa arautzen da (Emaitek programa).

Diru-laguntza publikoak emateko orduan ezinbestean bete behar da publizitatearen printzipioa. Hori dela eta, teknologia-zentro eta beren korporazio eta itun teknologikoei laguntzeko Emaitek programa arautzen duen Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2008ko irailaren 25eko Aginduak dioenez, laguntzen ebazpena banan-banan jakinarazi behar zaie interesdunei; hori horrela eginda ere, erakunde onuradunen eta onartutako diru-zenbatekoen zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Teknologia-zentroei eta beren korporazio eta itun teknologikoei laguntzeko Emaitek programa arautzen duen Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2008ko irailaren 25eko Aginduaren 13. artikuluaren 1. puntuan ezarritakoarekin bat etorriz, Berrikuntza eta Teknologiako sailburuordeak honako hau

EBAZTEN DU:

Artikulu bakarra.– Teknologia-zentroei eta beren korporazio eta itun teknologikoei laguntzeko Emaitek programa arautzen duen Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2008ko irailaren 25eko Aginduan aurreikusitako laguntzei dagokienez, 2011ko ekitaldian onuradun izan direnen zerrenda argitaratzea, Berrikuntza eta Teknologiako sailburuordearen 2010eko abenduaren 22ko deialdi-ebazpenaren arabera. Ebazpen horren bidez, halaber, esleipenaren berri ematea, honekin batera doan eranskinean azaltzen diren onuradunei.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko urtarrilaren 9a.

Berrikuntza eta Teknologiako sailburuordea,
JUAN IGNACIO GOICOLEA RUIGÓMEZ.

ERANSKINA / ANEXO

EMAITEK PROGRAMAKO ONURADUNAK

Emaitzetara bideratutako zentro teknologikoaren modeloarekiko egokitzapen-gradua	
Onuradunak	Diru-laguntza, 2011
Gipuzkoako Ikasketa eta Ikerkuntza Teknikoen Zentroa (Ceit)	1.848.547
Teknologia Elektrokimikoen Zentroa (Cidetec)	921.745
Gaiker Fundazioa	1.196.935
Ideko, S. Koop.	819.910
Ikerlan, S. Koop. Mugatua	2.024.719
Tekniker Fundazioa	2.215.919
Vicomtech Elkartea	654.576
Tecnalia Research & Innovation Fundazioa	12.021.787
Lortek Lotura Teknologien Ikerkuntza Zentroa	325.171
Ekintza globaleko planak	
Ekintza globaleko plana, Ik4	2011
IK4 Research Alliance Elkartea	1.627.687
Ekintza globaleko plana, Tecnalia	2011
Tecnalia Fundazioa	2.343.003